

1.2. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren ezaugarriak

Hizkuntzaren aldaera desberdinak puntuka harturik mapetan agerian emateko egiten dira bereziki hizkuntza atlasak, eta hau ere euskara ikergai izanik helburu horretan egina da.

Hizkuntza atlasak galdera berak eremu bateko toki desberdinetan eginez moldatzen baitira, haien ezaugarri nagusiak bi irizpide horien arabera itxura daitezke: galderen arabera (§1.2.1.) eta inkesta lekuen (§1.2.2.) arabera. Bestalde, berri emaileak nola aukeratzen diren (§1.2.3.) eta inkestetan zer metodo erabiltzen den (§1.2.4.) kontuan hartzekoa da, bai eta erantzunak argitaratzeko baliatzen diren bideak (§1.2.5.).

1.2.1. EHHako galdesorta¹

EHHako galdesortak guztira 2.857 galdera ditu, lau atal nagusitan bana daitezkeenak:

- lexikoa (2.163 galdera)
- jokatzeko morfologia (595 galdera)
- joskera (62 galdera)
- joskera fonetika (37 galdera)

Lexikoari dagokion galdesorta da luzeena. Hura osatzerakoan Euskal Herriko egoera geografikoa gogoan hartu da, bai eta ohiko lan jarduerak (artxaintza, abeltzaintza, zurgintza, nekazaritza, burdingintza, arrantza...). Hizkuntza atlasetan lexikoari buruzko galderek alderdi etnografikoa dute askotan, eta maiz biltzen dira haietan ohiko teknikei, jakintzei eta ikuspegiei dagozkien xehetasunak. EHHako sail horretako galdesorta Europako beste herrietan,

eta bereziki inguru hurbilekoetan, egindako hizkuntza atlasak gogoan izanik moldatu da, eta lan haietako erreferentziak agertzen dira galderen izenburuetan.

Hiztegi galdesorta semantikaren arabera eta beraz gaika antolatua da, izaditik hasiz eta gizadiarekin amaitzen diren 85 gaitan. Galderen zenbakietan agertzen diren lehen bi zenbakiak gaiei dagozkie hain zuzen.

Hauek dira gai nagusiak:

- Abereak (01-06)
- Zerua, denbora eta eguraldia (07-13)
- Lehorra eta itsasoa (14-18)
- Arbolak eta landareak (19-23)
- Etxe-abereak eta hazkuntza (24-31)
- Baserri etxea (32-36)
- Baserriko jarduerak, tresnak eta ekoizpena (49-57)
- Gorputza, eritasunak eta familiako bizitza (58-74)
- Gizarteko bizitza eta laneko mundua (75-85)

Lexiko galdera gehienak, inkesta leku guztietan galdetzeko pentsatuta daude (denetara 1.925 galdera). Haietaz kanpo badira beste 238 galdera, *galdera bereziak* deituak izan direnak, leku jakin zenbaitetan baizik egin ez direnak, toki horietako egoerari edo jardunbide berezi batzuei baitagozkie oroz gainetik: adibidez, itsas arrainen izenez egindako galdera gehienak itsas portuetan baizik ez dira egin^{II}, eta ahateaz egindakoak, ahate hazkuntza egin ohi den herrietan baizik ez.

^I Ikus zehatzago G. Aurrekoetxea / X. Videgain, 1993, "Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: galdesorta / cuestionario / questionnaire", *Euskera* 38-3, 529-647.

^{II} Itsas arrainei dagokienez (02110tik 02630rako galderak) jatorrizko inkestak egin zirenean Donostia ez zen portu gisa hartua izan (hango lekukoa baserritarra izanki) eta, beraz, ez ziren galdera berezi hauek eginak izan inkestak egin ziren garaian. Hala ere, argitaratzerakoan hutsune hori nolabait betetzeko inkesta osagarria egitea erabaki zen eta molde horretan osatu ahal izan da informazioa.

Morfologiari eta, oro har, gramatikari dagozkien galderak ez dira ohikoak hizkuntza atlasetan. Halabaina, gero eta leku handiagoa ematen zaie gaur egungo lanetan, eta Bonaparteren lanak kontuan izanik, badakigu euskararen dialektologian toki garrantzitsua izan dutela. Esan gabe doa euskararen arabera pentsatuak izan direla sail honetako galderak, gutxi balia baititezkeen ondoko erdaretako ereduak euskararen kasuan.

Morfologiari buruzko galdera gehienak jokadurari dagozkio, hau da, morfologia flexiboari.

Izen jokadura denaz bezainbatean, lehenik izen arrunten deklinabide kasuak aztertzen dira, *-a*, *-e*, *-i*, *-o*, *-u*, *-ai*, eta kontsonantez amaitzen diren izenen formak bilatuz (*-ü* batez bukatzen diren hitzen jokadura galdera berezien artean aztertu da). Ez dira deklinabide kasu guztiak agertzen galderetan, *-o* hizkiz amaitutako izen arruntetan salbu. Ondoren, beste morfemak ikertu dira: zenbatzaileak, erakusleak, izenordainak eta, tartean barreiatuak, zenbait aditzondo (86-89 gaiak).

Aditz morfologian aditz laguntzaile eta trinkoen paradigmatako adizkera batzuen inguruan eratu da galdesorta (alokutiboak barne), baina gaia osoki kurrizteko asmorik gabe, naski (90-93 gaiak). Esan gabe doa, bestalde, zenbait kasutan morfologiako eta lexikoko aurkaritzak nahasirik agertzen direla erantzunetan.

Joskerari dagokionaz galdera gutxiago da, nekez mapara baitaitezke gisa horretako gaiak. Bereziki hauek izan dira ukituak: aditzarekiko komunztadurak, aditz batzuen erregimenak, galdegai kontuak, mendeko perpaus erabilienak, etab. (94. gaia).

Azkenik, joskera fonetikari dagozkion galdera batzuk aurkitzen dira, aditz jokaduran bereziki ager daitezkeen morfema segiden burutzapena azterkatzeko eginak (95. gaia).

1.2.2. Inkesta lekuak

Hizkuntza atlasetako inkesta lekuen sarea eratzean eta haren dentsitatea finkatzerakoan, faktore desberdinak hartu dira kontuan: erliebea, hizkuntzaren egoera, historia, elizbarrutiak, azokak...

Euskararen dialektalizazio handiagatik, inkesta lekuen sarea aski hertsia egin da. Inguruko hizkuntza atlasetakoa baino tinkoagoa da, beraz, EHHako sarea, euskararen aldakortasun dialektala auzoko hizkuntzetakoa baino handiagoa delako.

Orotara 145 inkesta leku aukeratu dira, ohiko euskararen eremu guztia esaltzen dutenak eta, beraz, estatu eta izaera desberdineko barruti politiko administratiboetan sartuak direnak. Horrela, 45 inkesta leku Frantziako Pirinio Atlantikoetako Departamenduari dagozkio, 73 inkesta leku Espainiako Euskal Autonomia Erkidegoari, eta 27 Nafarroako Foru Erkidegoari. Mendebaldetik ekialdera joanik, honela banatzen dira inkesta lekuak euskal herrialdeetan:

BIZKAIA	36
ARABA	1
GIZPUZKOA	36
NAFARROA	27
LAPURDI	15
NAFARROA BEHEREA	18
ZUBEROA	12

1.2.3. Lekukoak

Hizkuntza atlasetan egiten diren inkestak inkesta lekuetan jaiotako lekukoekin egiten dira, hauek galdesortaren ezaugarrien arabera hautatzen direla.

EHHaren kasuan, ohiko euskara bereziki izan baita ikergai, eta ohiko gizarteari buruzko galdesorta egin baita oroz gainetik, adineko berri emaileak aukeratu dira, sortzez eta familiaz tokian tokikoak, eta ahalaz herritik kanpoan gutxi ibiliak.

Gizonen eta emakumeen artean ez da bereizketarik egin oro har, beste berezitasunei kasu gehiago eginez; halere, behin edo behin, gizonezkoak kanpoko lanen berri izateko hautatu dira eta emaztekiak etxeko lanen berri jakiteko.

Herri gehienetan lekuko bakarra izan da, nahiz badiren bi eta gehiagorekin ere egindako inkestak. CD-ROMeko argitalpenean, zehazten da horrelako kasuetan zein lekukok zein erantzun eman duen.

1.2.4. Inkesta metodologia

Galderak egitean bide bat baino gehiago erabili izan dute inkestagileek^{III}. Batzuetan ikonoak erabili dituzte, hala nola argazkiak (txori, arrain, pizti, intsektu, landaretza, eta abarretan) edo irudiak eta argazkiak teknologian (garraio sistemak, lurra lantzeko tresnak...). Bestela, perifrasiak edo egoeren deskribapenak baliatu dira, bai eta, bigarren mailan, auzo hizkuntzetako hitzak. Kasu batzuetan lekukoek ez dituzte denetan modu berean eman erantzunak, edo galdera ez delako arras modu berean ulertu orotan, edo gramatika kategoriaren aldetik erantzun desberdinak bildu izan direlako. Irakurleak kontuan hartu beharko duen gorabehera da hau.

Lekukoak emandako lehen erantzuna jaso ondoan, inkestagileek bildu dituzte, eta beharrez, bilatu ere, bigarren edo hirugarren erantzunak. Horregatik herri

bakoitzean erantzun bat baino gehiago izan daiteke. Esan gabe doa, erantzun horiek ez direla beti arras sinonimoak, ezen erantzun bereziak ere izan daitezke, edo parafraasi moduan ematen diren baliokideak.

Inkestagileak saiatu dira erantzunak mugagabeen (izen eta izenondoen kasuan) edo partizipio burutuaren forman (aditzen kasuan) emanaraztera. Adibidez, erantzun gisa izen bat artikularekin bildu ondoan, galdetzen zitzaion lekukoari eman zezan izen bera zenbatzaile batekin erabilirik, hitza mugagabeen jasotzeko gisan. Esan behar da horrela eginez ere, zalantzazko datuak bildu direla behin baino gehiagotan, eta irakurleak kontu handiz behatu beharko dio informazio horri.

Ezagutza pasiboa neurtzeko erantzun proposatuak bildu dira. Behin erantzuna lortu ondoan, *kontra-galdeketa* deitu izan dena egiten zuten EHHako inkestagileek. Sistema hau geolinguistikan lehen aldiz *Atlas Linguistique et ethnographique de la Gascogne* delakoan aplikatu zen^{IV}, eta haren helburua da erantzun zuzenen bidez jaso informazioa osatzea, lekukoaren ezagutza pasiboaz ere kontu edukiz. Horretarako berri emailearen zuzeneko erantzunak bildu ondoan, inkestagileek beste erantzun batzuk ere proposatzen zizkion batzuetan, ikusteko hauek ezagutzen ote zituen eta zer gisaz (herrian eta hartarik kanpoan erabiltzen ote zen, edo zaharrek erabiltzen ote zuten bakarrik, baina gazteagokoek ez, edo zerbait berezi adierazteko ote zen, etab.). Esan gabe doa, informazio mota hau beti seinalatua dela eta edozein modutan ere kasu eginez erabiltzeko dela.

III Ikus zehatzago G. Aurrekoetxea, 1986, "Euskal Herriko Hizkuntza Atlas (EHA): inkesta metodologia eta ezezeko datuak", *Euskera* 31-2, 413-424.

Ikus X. Ravier, 1965, "Le traitement des données négatives dans l'Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne", *Revue de Linguistique Romane* XXIX, 262-274. orr.; eta J. Ségué, "Avant-propos du volume IV", *ALG* IV, 12-13. orr. In *ALG*, 1954-1973

1.2.5. Argitalpenak

Aitzin solasean esan bezala, EHHA hiru modutan argitaratzen da:

- Paperean, mapak eta erantzunak biltzen dituzten ohiko liburu batzuetan;
- CD-ROMean, liburuaren edukia pdf formatoan.
- Internet bertsioa, liburuaren edukia informazio bilatzailearekin osaturik.

Hiru argitalpen horiek behar desberdinei erantzuten diete: liburuko argitalpena erreferentziazko erabileretarako eta kontsulta puntualetarako egina da bereziki; gainerako biak, berriz, ikerlan sakonagoen egiteko dira, eta paperezko argitalpenaren osagarri.

Oroitaraz dezagun, bestalde, hiru argitalpen horien ondoan, EHHA soinuazko datuen gordailua ere badela Azkue Bibliotekan, ikertzaileek entzun dezaketena. Han bildurik dago, ororen buruan, gaineratiko lanaren oinarri guztia.